Beterri Buruntza
Akta / Acta
Zk./ Nº 2024/5
Data / Fecha 2024/05/28

BETERRI BURUNTZA
Mankomunitatea

**Tokiko Gobernu Batzarraren Akta**
**2024ko apirilaren 29a**

| | |
|---|---|
| Akta Zenbakia | **00000005** |
| Eguna | **2024/04/29** |
| Iraupena | **-** |

**Bildutakoak:**

| | |
|---|---|
| **Patxi Ibarguren Etxeberria** | **Lehendakaria eta Hernaniko Udaletik** |
| **Pepe Iparraguirre Balda** | **Andoaingo Udaletik** |
| **Iratxe Begiristain Otegi** | **Usurbilgo Udaletik** |
| **Jorge Segurado Iriondo** | **Urnietako Udaletik** |
| **Jon Antxordoki Rekondo** | **Lasarte-Oriako Udaletik** |
| **Xabier Urdangarin Lasa** | **Astigarragako Udaletik** |

**Asistentzia teknikoa***:*

| | |
|---|---|
| **Julen Mungia Gorrotxategi** | **Idazkari-Kontuhartzailea** |
| **Helene del Río Laboa** | **Zuzendaria** |

**Parte hartzen du ere**

| | |
|---|---|
| **Zuriñe Mindegia eta Asier Gutierrrez** | **Zabalduz Kooperatibatik** |

Gai Zerrenda

| | |
|---|---|
| 1.- 2024/04/15(e)an eta 2024/03/11ean egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada. | 1.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 15/04/2024 y el 11/03/2024. |
| 2.- ZABALDUZ Kooperatibaren aurkezpena, azaltzeko Elkar Ekinen eta inserzio soziolaboraleko lanak | 2.- Presentación de la Cooperativa ZABALDUZ para explicar los trabajos de Elkar Ekin y de inserción sociolaboral |
| 3.- Enpresa eta sustapeneko teknikariaren eskaerari buruz berri ematea | 3.- Informar sobre la solicitud del Técnico/a de Empresa y Promoción |
| 4.- 2024. urteko TEE buruzko antolamenduari buruz berri ematea | 4.- Informar sobre la organización de las ALE del año 2024 |
| 5.- Kreditu-aldaketak onartzea: kredituen transferetnzia (berokuntzarako eta aire giroturako) eta kreditu gehigarriak (2023ko TEEetarako). | 5.- Aprobación de las modificaciones de créditos: transferenciade créditos (para la calefacción y aire acondicionado) y créditos adicionales (para las ALE 2023). |
| 6.- Kontuen Batzorde Berezian onartu behar diren espedienteak onartzea: 2023ko Kontu Orokorrak eta likidazio-espedientea. | 6.- Aprobación de los expedientes a aprobar en la Comisión Especial de Cuentas: Cuentas Generales 2023 y expediente de liquidación. |

ESKUd77402d3-e1a3-4799-81e5-6c934d4a9d95

7.- Mankomunitateko Lanpostuen Zerrendan egin diren aldaketei buruz berri ematea: soldatak (azken igoerengatik) eta Zuzendariaren eta Teknikarien Titulazioa. Onarpena Batzar Nagusiarena da.

8.- Mankomunitateko Idazkari-Kontuhartzailearen merezimendu espezifikoak (%5) ezartzea edo ez erabakitzea, 2024ko lehiaketa arrunterako.

9.- Galdera, erregu eta proposamenak.

7.- Informar sobre las modificaciones hechas en la Relación de Puestos de Trabajo de la Mancomunidad: salarios (por los últimos incrementos) y Titulación de la Directora y los/as Técnicos/as. La aprobación es de la Asamblea General.

8.- Establecer o no los méritos específicos (5%) del Secretario-Interventor de la Mancomunidad para el concurso ordinario 2024.

9.- Ruegos, preguntas y propuestas.

---

**Nahikoa quorum dagoenez eta Lehendakaria eta Idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.**

---

**1.- <u>ZABALDUZ Kooperatibaren aurkezpena, azaltzeko Elkar Ekinen eta inserzio soziolaboraleko lanak</u>**

Lehenik eta behin, gai-ordeneko 2. puntuarekin hasi gara, Zabalduz Kooperatiboko bi langile etorri beraiek Elkar-Ekin programaren baitan egiten duten lana azaltzera. 20 bat minutuko azalpena eman dute.

**2.- <u>2024/04/15(e)an eta 2024/03/11ean egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.</u>**

2024/04/15 eta 2024/03/11ko datako batzarraldiari dagokion akta irakurri ondoren, Lehendakariak honen onarpena bozketara jarri du. Lasarte-Oriako eta Urnietako ordezkariak abstenitu egin dira bi akta horiek onartzerako garaian. Andoaingo, Hernaniko, Astigarragako eta Usurbilgo ordezkariak, aldiz, alde bozkatu dute. Beraz, bi aktak onartutzat eman dira.

**3.- <u>Enpresa eta sustapeneko teknikariaren eskaerari buruz berri ematea</u>**

Lehendakariak enpresa eta sustapeneko teknikari bat kontratatzeko beharraren azalpenarekin hasi eta gero Zuzendariari eman dio hitza, berak azalpen sakonago bat emateko.

Zuzendariak teknikari hori kontratatzeko beharra azaldu du eta erreferentzia egin dio berak idatzitako txostenari, txostenean azaltzen baita zehazki zergatik den garrantzitsua horrelako beste teknikari bat kontratatzea. Labur esanda, enpresa eta ekintzailetza

ESKUd77402d3-e1a3-4799-81e5-6c934d4a9d95

zerbitzua teknikari batek bakarrik ematen duela esan du eta ez dela denetara iristen. Era honetan, enpresekin hartuemana izatea ezinezkoa da, eta eskualdeko enpresak ezagutzea eta harremana izatea beharrezkoa da Mankomunitatearentzat. Gainera, gehitu du GFAk aipatu digula eta eskatzen digula gure Mankomunitatea eskualdeko enpresen famili-mediku izateko.

Lasarte-oriako ordezkariak eskatu du Lasarte-Oriatik aurreko ostiralean bidalitako emailean puntu honi buruz jartzen zuena aktan jasotzeko. Beraz, interpretazio arazorik egon ez dadin, literalki, email horretan jartzen duena jarraian aipatuko dut: "*Puntu honetan, Helenek bidalitako idazkia aldatzeko eskatu nahi dugu, eskualde-garapenerako agentzia garela baieztatzen den aldiei dagokienez, denok dakigunez, oraingoz eta Mankomunitatea baztertzen ez den bitartean, ez gara garapen-agentzia bat, baizik eta mankomunitate bat.*
*Bestalde, puntu honek zalantza sortzen dit. Nondik aterako dugu teknika berri honetarako aurrekontua? 2024rako dago aurrekontuan?*"

Zuzendariak eta Idazkari-Kontuhartzaileak Lasarte-Oriariako ordezkariari erantzun diote emailez erantzun ziotena. Emailean jartzen duenari jarraiki, Zuzendariak eta Idazkari-kontuhartzaileak ondorengoa erantzun diote:

Ukaezina eta agerikoa da mankomunitate bat garela. Zergatik? Horrela sortu zelako eta halaxe esaten dutelako gure Estatutu Sozialek. Argi daukagu gure forma juridikoa Mankomunitate batena dela, eta, beraz, Administrazio Publiko batena (udal baten kasuan bezala), beste gauza bat da gure jarduera edo helburu soziala. Gu, batez ere, Mankomuntitatea osatzen duten udalerrien sustapen eta garapen sozioekonomikoan eta herritarren ongizatean laguntzeko jarduerak egiten aritzen gara. Hori esanda, gutaz gain, beste erakunde batzuk ere badaude, beste forma juridiko bat dutenak (gehienak sozietate anonimo publikoak dira), eta horretan dihardute: eskualde-garapenean (Tolosaldea Garatzen S.A., Agencia de Desarrollo del Bidasoa S.A., Goierriko Ekimena S.A....). Agentzia horiek (funtsean, sozietate anonimo publikoak dira) beren estatutuen eta Kapital Sozietateen Legearen arabera arautzen dira, eta kontratazioari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen Legean administrazio publiko EZ diren erakundeentzat xedatutakoaren arabera arautzen dira. Beraz, gu ez bezala, argi eta garbi bereizten da EZ direla Administrazio Publiko bat.
Nahiz eta batzuk sozietate anonimo publikoak izan eta beste batzuk mankomunitateak izan, gure jarduera edo helburu soziala, nagusiki, antzekoa da: eskualdearen garapen sozioekonomikoa sustatzea. Eta hor dago gakoa. Horregatik aipatzen dugu, batzuetan, tokiko garapen-agentzia bat garela. Garatzen dugun jarduera edo helburu sozialarengatik, ez gure forma juridikoagatik (zalantzarik gabe, Mankomunitatea gara).

Era berean, kontuan izan behar da inguruko mankomunitate asko (ausartuko nintzateke

ESKUd77402d3-e1a3-4799-81e5-6c934d4a9d95

esatera gehienak direla) hiri-hondakinen kudeaketan aritzen direla (hau jakingo duzute eskualdeko honetako gehienak San Markosekoak zaretelako, adibidez). Era berean, Urola Kostako Mankomunitatean hondakinen kudeaketan eta udalerrien tokiko garapenean aritzen dira (alde horretatik, haiek ere garapen-agentzia gisa identifikatzen dira). Eta gu, aldiz, toki-garapenean bakarrik aritzen gara. Nahiz eta gu bakarrik eta Urola Kostakoak partzialki tokiko garapenean aritzen garen (eta, beraz, tokiko garapen agentzia gisa identifikatzen gaituzten), ez diogu horregatik Mankomunitatea izateari uzten.

Beraz, laburbilduz, Mankomunitate bat gara, gure forma juridikoa hori delako, eta hala diote gure Estatutuek, baina, aldi berean, tokiko garapen-agentzia bat gara, gure jarduera edo helburu sozialagatik.

Bestalde, Urnietako eta Lasarte-Oriako galderari erantzunez, idazkari-kontuhartzaileak esan die Mankomunitateak baduela aurreikusia aurrekontuetan pertsona hori kontratatzea. Gainera, Zuzendariak erantzun die pertsona hori kontratzerakoan, 2 teknikari egongo baitira departamentuan, oro har, bat ekintzaileetan zentratzea eta bestea enpresetan.

Bestalde, parentsi bat irekiz puntu honetan eta gai hau alde batera utziz, eta nahiz eta puntu honekin zerikusi zuzenik ez izan, Lasarte-Oriako ordezkariak adierazi du aktan jasota gelditzeko Gobernu Batzarreko bilerarako dokumentazioa denbora gehiagorekin bidaltzea. Kasu honetan, salbuespen moduan, ostegunean dokumentu bat bidali zaie (TEEarekin lotutakoa) ez baitzien Mankomunitateko teknikariei denborarik eman hori aldez aurretik lantzeko eta bidaltzeko. Hala ere, normalean, deialdia eta gainontzeko dokumentazioa asteazkenean egiten dela adierazi du eta kexatu da ez dutela nahikoa astirik izatean hura ondo aztertzeko eta lantzeko.

Astigarragako ordezkariak gogorazi die, hala eta guztiz ere, legearen epearen barruan bidaltzen direla dokumentuak.

Idazkari-kontuhartzaileak adierazi du hemen oztopoa dagoela bi asteroz behin elkartzen garelako. Beraz, astebeteko epearekin bidaliz gero deialdia eta dokumentazioa, Mankomunitateko langileak 4 egun besterik ez genituztekeela izango dokumentazio hori lantzeko, eta, era berean, beraiek 5 egun terdi izango lituzketeela horiek irakurtzeko eta aztertzeko.

Honen harira, aukera posible desberdinak plazartu dira, adibidez: hiru asteroz behin edo hilabetean behin elkartzea (azken aukera honen alde azaldu da Urnietako ordezkaria). Hemen itxi da puntu honetan irekitako parentesia.

ESKUd77402d3-e1a3-4799-81e5-6c934d4a9d95

Enpresa teknikariren kontratazioarekin jarraituz, Andoaingo ordezkariak begionez ikusi du kontratazioa eta zentzuzkoa iruditzen zaio.

Azkenik, Astigarragako ordezkariak esan du, nahiz eta kontratazio hau egin, motz geratuko garela. Mankomunitateak giza-baliabide askoz ere gehiago behar dituela. Urola Kostan 50.000 inguru pertsona bizi direla esan du eta beraien Mankomunitatean askoz ere plantilla handiago dute. Gure eskualdeak, berriz, 70.000 biztanle inguru ditu eta langabezi tasa altuagoa da, eta, hala ere, askoz ere plantilla txikiago daukagu. Horregatik uste du Astigarragako ordezkariak motz geratuko garela eta gutxienez Lanpostu Zerrendako postuak bete beharko genituzkeela.

4.- **2024. urteko TEE buruzko antolamenduari buruz berri ematea**

Zuzendariak aurkeztu eta pantailan erakutsi digu enplegu teknikariarekin batera prestatutako 2024ko TEEtarako aukera posibleak. Azken finean, 3 eszenario planteatu ditu:

a. Hasierako aurrekontuko partidaren kopuruarekin gelditzea (319.200€), kontuan izanda, aurreko urteko aurrekontuarekin alderatuta ia ia kopuru erdia dela.
b. Hasierako aurrekontuko partidari 175.000€ gehitzea Kreditu Gerakinetik (319.200€ + 175.000€ = 494.200€).
c. Kutxa-irizpidea jarraitzea. Hau da, Mankomunitateak kontratazioen kostu guztia aurreratu beharrean, Lanbidetik jasotzen duen diruaren arabera ematea dirua udalei. Hau da, kontratzio urtean (2024ean) kostuaren %53 aurreratzea eta, seguraski, bi urte barru (2026n) kostuaren %47 ematea.

Lasarte-Oriako ordezkariak esan du beraiek azken aukera hau ez dutela ikusten eta beraien kontuhartzailea ere ez dagoela ados honekin eta ez lukeela onartuko.

Orduan, bozkara eman da 3 aukera horietatik bat aukeratzeko, gero Mankomunitateak bere proiektua aurkeztu dezan Lanbiden. Azkenean, udalerri guztiak, aho-betez, erabaki dute b) aukera, hau da, hasierako aurrekontuari 175.000€ gehitzea diruzaintzako gerakina erabiliz. Beraz, guztira, 494.200€. Honetaz gain, b) aukera hau aukeratzeagatik, ondorengo emaitzak onartu dira:

ESKUd77402d3-e1a3-4799-81e5-6c934d4a9d95

| | Esleitutakoak | Peoiak | Ofizialak | Tekni/Adm. |
|---|---|---|---|---|
| Andoain | 5 | 3 | 1 | 1 |
| Astigarraga | 2 | 2 | 0 | |
| Hernani | 5 | 2 | 3 | |
| Lasarte-Oria | 6 | 3 | 1 | 2 |
| Urnieta | 2 | 2 | 0 | |
| Usurbil | 2 | 2 | 0 | |
| BBM | 1 | 0 | 0 | 1 |
| | 23 | 14 | 5 | 4 |

*Gogoan izan teknikari edo administrariengatik 12.500,00 euroko dirulaguntza aurreratzen duela Mankomunitateak, ez langilearen kostu osoa.

Hortaz, peoiengatik Mankomunitateak 17.375,70€koa kostua aurreratuko die udalei eta ofizialengatik 19.652,12€. Zenbateko hauetan dagoeneko aurreikusia dago %2ko igoera soldaten igoerarengatik.

Gainera, TEEetako 2. lerroa jorratzea aurreikusi da eta horretarako, gutxi gorabehera, 75.000€ egongo dira.

**5.- <u>Kreditu-aldaketak onartzea: kredituen transferetnzia (berokuntzarako eta aire giroturako) eta kreditu gehigarriak (2023ko TEEetarako).</u>**

Nahiz eta aldez aurretik dokumentazio guztia bidali, idazkari-kontuhartzaileak azalpen labur bat eman zien azaltzen zertan datzaten kreditu aldaketek. Kreditu transferentzia, kreditu globaletik inbertsio errealak partidara dirua traspasatzeko da, bulegoan falta den geletan aire egokitua eta kalefazioa jartzeko. Hau da, dagoeneko instalatuta dauden bi aire egokituak beste hirutan banatzeko, eta guztira, 5 izateko. Kreditu gehikuntza, berriz, 2023ko TEEgatik hiru udalerriei (Lasarte-Oria, Andoain eta Urnieta) abenduan arazo batzuengatik aurreratu ez zitzaien kopurua  orain aurreratzeko. Azken finean, 2023ko aurrekontuan erabili ez zen kopurua 2024n erabiliko da.

Aho batez ordezkari guztiek onartu dituzte bi kreditu aldaketak

**6.- <u>Kontuen Batzorde Berezian onartu behar diren espedienteak onartzea: 2023ko Kontu Orokorrak eta likidazio-espedientea.</u>**

Nahiz eta aldez aurretik ordezkari guztiei honen inguruko dokumentazioa bidali, idazkari-kontuhartzaileak labur-labur azaldu du, adibidez, kobratzeko zalantzagarriak diren kredituak jarri direla diruzaintzako gerakina behar baino gehiago ez puzteko eta errealitatea hobeto islatzeko. Adierazi zaie, adibidez, zalantzagarrizko kreditu horietan jarri

ESKUd77402d3-e1a3-4799-81e5-6c934d4a9d95

dela 2022ko TEEtik 2023n jasotzeko agertzen zenaren zenbatekoa, baina hori ez da 2023n jasoko, baizik eta 2024n.

Beraz, Kontuen Batzorde Bereziak kontu horiek onartu eta gero, argitaratzera bidaliko da eta, ondoren, Batzar Nagusiari deituko zaio Kontu Orokorrak onartzeko, hala badagokio.

7.- **Mankomunitateko Lanpostuen Zerrendan egin diren aldaketei buruz berri ematea: soldatak (azken igoerengatik) eta Zuzendariaren eta Teknikarien Titulazioa. Onarpena Batzar Nagusiarena da.**

Hemen idazkari-kontuhartzaileak adierazi du, Lasarte-Oriatik abisatuta, Plantilla Organikoan akats bat dagoela eta horregatik ez duela bat egiten Lanpostuen Zerrendan jartzen duenarekin. Horregatik, Plantilla Organikoan Enpresa eta Ekintzailetza teknikari 1 jartzen duen tokian 2 jarri behar du.

Bestalde, Titulazioei dagokionez, Zuzendariaren kasuan, legeak hala dioleako, lehenago “Gradu edo baliokidea” jartzen zuen eta orain, berriz, “Zuzenbidean, Politika, Ekonjomia edo Enpresa Zientzietan, Merkataritza Intendentean edo Aktuarioan Lizentziadun titulua”.

Bestalde, Teknikarien kasuan, lehen “Gradua edo baliokidea jartzen zuen tokian”, orain “Gradua, Lizentziatura, Ingeniari Teknikoa, Unibertsitate-diplomatura, Arkitekto Teknikoa edo baliokidea” jartzen du.

Azkenik Idazkari-kontuhartzailearen kasuan, Taldea/Grupo atalean, lehen A1 agertzen zen tokian orain A2 agertzen da.

Legeak hala eskatzen duelako, aldaketa horiek ondo ikusi dituzte batzarkideek eta hurrengo Batzar Nagusira eramango da onartua izateko, hala badagokio.

8.- **Mankomunitateko Idazkari-Kontuhartzailearen merezimendu espezifikoak (%5) ezartzea edo ez erabakitzea, 2024ko lehiaketa arrunterako.**

Idazkari-kontuhartzaileak adierazi du GFAk, urtero legez, toki entitateei galdetu diela ea aurtengo lehiaketa bateratuan parte hartuko duen, gaikuntza nazionaleko lanpostuak betetzeko asmotan, eta hala badagokio, merezimendu espezifikoak (%5 balio dutena) zehaztu nahi ditugun ala ez.

Aho batez onartu da ez hartzea parte aurtengo lehiaketa bateratuan eta, hortaz, merezimendu espezifikoak ez zehaztea.

ESKUd77402d3-e1a3-4799-81e5-6c934d4a9d95

Gai Zerrendaz kanpo, *Galdera, erregu eta proposamen* atalera iritsi aurretik, eta gaiaren eztabaida presazkoa dela iritzi ondoren, aho batez, eta beraz, batzarkideen gehiengo osoaren quorumarekin, ondoko erabakiak hartu ziren

9.- **Galdera, erregu eta proposamenak.**

Idazkari-kontuhartzaileak gogorazi die udalerritako alkateek sinatu behar dutela hitzarmena laneratze-enpresa kontratatzeko plegu bateratuak arautzen dituena. Urnietari gelditzen zaio hura sinatzea, nahiz eta, esaten duen ez zaiola ezer iritsi. Hori konpontzen saiatuko gara. Gainera, esan die aste honetan saiatuko dela pleguen zirriborroa bidaltzen begiradatxo bat eman diezaieten.

Bestalde, hurrengo Gobernu Batzarren datuak finkatu dira: maiatzaren 13n eta 27n 12:30tan. Gainera, ekainaren 17n Batzar Nagusiaren bilera egitea erabaki da, 12:30tan (eta egun hori aprobetxatu da Gobernu Batzarraren beste bilera bat egiteko ere).

Zuzendariak adierazi du Basquetour-ek esan duela Gipuzkoan partehartzaile asko daudela eta, horregatik, seguraski, gu ez garela esleituak izango. Beraz, hori horrela baldin bada, lan-ildo hori (turismoaren estrategia) gure kabuz jorratzea ondo ikusi da.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, 14:20 minutu zirenean. Idazkari-Kontuhartzaileak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Lehendakariak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorriz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, naizen honek, ematen dut.

**O.E., / Vº Bº**
**Lehendakaria**

**1.- Presentación de la Cooperativa ZABALDUZ para explicar los trabajos de Elkar Ekinen y de inserción sociolaboral**

En primer lugar, comenzamos con el punto 2 del orden del día, en el que dos trabajadores de Zabalduz Kooperatiba vienen a explicar el trabajo que realizan en el marco del programa Elkar-Ekin. Han dado una explicación de unos 20 minutos.

**2.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la reunión del 15/04/2024 y 11/03/2024**.

La Presidenta somete a votación el acta correspondiente a los días 15/04/2024 y 11/03/2024. Los representantes de Lasarte-Oria y Urnieta se han abstenido de aprobar

ESKUd77402d3-e1a3-4799-81e5-6c934d4a9d95

ambas actas. Los representantes de Andoain, Hernani, Astigarraga y Usurbil votan a favor. Por tanto, ambas actas se dan por aprobadas.

**3.- Informar sobre la solicitud del Técnico de Empresa y Promoción**

La Presidenta comienza con la exposición de la necesidad de la contratación de un/a Técnico/a de Empresa y Promoción y cede la palabra a la Directora para que ésta dé una explicación más profunda.

La Directora expone la necesidad de contratar a este/a técnico/a y hace referencia al informe redactado por ella, en el que se explica en concreto por qué es importante contratar a otro/a técnico/a de este tipo. En definitiva, dice que el servicio de empresa y emprendimiento sólo lo presta una técnica y que no llega a todo. De este modo, no es posible tener contacto con empresas, y para la Mancomunidad es necesario conocer y relacionarse con las empresas de la comarca. Además, añade que la DFG nos ha dicho y nos pide que nuestra Mancomunidad sea el médico de familia de las empresas de la comarca.

El representante de Lasarte-oria solicita que conste en acta lo que en este punto se decía en el email enviado el pasado viernes desde Lasarte-Oria. Por tanto, para evitar problemas de interpretación, cito literalmente lo que pone en ese email a continuación: " "*EN este punto solicitar que se modifique el escrito enviado por Helene en relación a las veces que se afirma que somos una agencia de desarrollo comarcal cuando, como somos conscientes todos, de momento y mientras no se disuélvala Mancomunidad, no somos una agencia de desarrollo si no una Mancomunidad*.

Por otra parte, este punto me genera dudas. ¿De dónde vamos a sacar presupuesto para este/a nuevo/a técnico/a? ¿Está presupuestado para 2024?

La Directora y el Secretario-Interventor responden al representante de Lasarte-Oria lo que le contestaron por e-mail. Tal y como se indica en el email, la Directora y el Secretario-Interventor le responden lo siguiente:

*Es innegable y evidente que somos una Mancomunidad. Por qué? Porque se creó así y así lo dicen nuestros Estatutos Sociales. Tenemos claro que nuestra forma jurídica es de una Mancomunidad, y, por tanto, una Administración Pública (como es el caso de un ayuntamiento), otra cosa es nuestra actividad u objeto social. Nosotros nos dedicamos principalmente a realizar* ***actividades que contribuyan a la promoción y desarrollo socioeconómico de los municipios que la integran y a la mejora del bienestar de su ciudadanía****. Dicho esto, a parte de nosotros, existen otras entidades, con otra forma jurídica (la mayoría son Sociedades Anónimas públicas) que se dedican a lo mismo: al* ***desarrollo comarcal*** *(Tolosaldea Garatzen S.A., Agencia de Desarrollo del Bidasoa S.A., Goierriko Ekimena S.A….). Estas agencias (que, básicamente, son Sociedades Anónimas públicas) se rigen por sus estatutos, por la Ley de Sociedades de Capital y en el tema de la contratación se rigen por lo dispuesto en la Ley de Contratos del Sector*

ESKUd77402d3-e1a3-4799-81e5-6c934d4a9d95

*Publico para las entidades que NO son Administración Pública. Por tanto, a diferencia de nosotros, se distingue claramente que NO son una Administración Pública.*

*Sin perjuicio de lo anterior, si bien unos son Sociedades Anónimas públicas y otros somos Mancomunidades, nuestra actividad u objeto social es, principalmente, similar: promover el desarrollo socioeconómico de la comarca. Y aquí reside la clave. Es por esto por lo que en ocasiones hacemos referencia a que somos una agencia de desarrollo local. Por la actividad u objeto social que desarrollamos, no por nuestra forma jurídica (indiscutiblemente somos una Mancomunidad).*

*Asimismo, hay que tener en cuenta, que muchas Mancomunidades de la zona (me atrevería a decir que la mayoría) se dedican a la gestión de los residuos urbanos, tal y como sabréis, ya que vosotros pertenecéis a San Marcos. A su vez, en la Mancomunidad Urola Kosta se dedican a la gestión de residuos y al desarrollo local de los municipios (por esa parte a ellos también se les identifica como agencia de desarrollo). Y nosotros, en cambio, nos dedicamos exclusivamente al desarrollo local. Si bien nosotros exclusivamente y los de Urola Kosta parcialmente nos dediquemos al desarrollo local (y, por tanto, se nos identifique como una agencia de desarrollo local) no es incompatible y, por ello, no dejamos de ser una Mancomunidad.*

*Por tanto, resumiendo, somos una Mancomunidad porque nuestra forma jurídica es esa y así lo dicen nuestros Estatutos, pero, a la vez, somos una agencia de desarrollo local por nuestra actividad u objeto social*".

Por otra parte, respondiendo a la pregunta de Urnieta y Lasarte-Oria, el Secretario-Interventor les informa que la Mancomunidad tiene prevista en los presupuestos la contratación de esta persona. Además, la Directora responde que a la hora de contratar a esta persona habrá 2 técnicos en el departamento, en general, uno centrado en los emprendedores y otro en las empresas.

Por otra parte, abriendo un paréntesis en este punto y dejando de lado este tema, y aunque no guarde relación directa con este punto, el representante de Lasarte-Oria manifiesta que conste en acta de que se envíe la documentación para la reunión de la Junta de Gobierno con más tiempo. En este caso, de forma excepcional, el jueves se les ha enviado un documento (relacionado con el TEE) que no había dado tiempo a las técnicas de la Mancomunidad para su elaboración y envío previo. No obstante, señala que normalmente la convocatoria y el resto de documentación se envía el miércoles y se queja de que no tienen tiempo suficiente para analizarla y trabajarla bien.

El representante de Astigarraga les recuerda que, no obstante, la remisión de la documentación se realiza dentro del plazo legal.

ESKUd77402d3-e1a3-4799-81e5-6c934d4a9d95

El Secretario-Interventor señala que aquí hay un obstáculo porque nos reunimos cada dos semanas. Por lo tanto, si enviábamos la convocatoria y la documentación con una semana de plazo, el personal de la Mancomunidad sólo tendría 4 días para elaborar dicha documentación, y al mismo tiempo ellos tendrían 5 días para su lectura y análisis.

En este sentido, se plantea una alternativa diferente, por ejemplo: reunirse cada tres semanas o una vez al mes (el representante de Urnieta se muestra a favor de esta última opción). Aquí se cierra el paréntesis abierto en este punto.

Continuando con la contratación de los técnicos de la empresa, el representante de Andoain aprueba la contratación y le parece razonable.

Por último, el representante de Astigarraga dice que aunque se haga esta contratación, nos quedaremos cortos. Que la mancomunidad necesita muchos más recursos humanos. Dice que en Urola Kosta viven unas 50.000 personas y en su Mancomunidad tienen una plantilla mucho mayor. Por su parte, nuestra comarca tiene una población cercana a los 70.000 habitantes y una tasa de paro superior, aunque con una plantilla mucho más reducida. Por ello, el representante de Astigarraga considera que nos quedaremos cortos y deberíamos cubrir al menos los puestos de la RPT.

**4.- Informar sobre la organización de las ALE del año 2024**

La directora nos presenta y nos muestra en pantalla las posibles opciones para los ALE 2024 preparados junto con la técnica de empleo. En definitiva, plantea 3 escenarios:

a) Quedar con el importe de la partida del presupuesto inicial (319.200 €), teniendo en cuenta que supone casi la mitad del presupuesto del año anterior.

b) Incrementar la partida del presupuesto inicial en 175.000 €del Remanente de Tesorería (319.200 €+ 175.000 €= 494.200 €).

c) Seguir el criterio de caja. Es decir, que la Mancomunidad no adelante el coste total de las contrataciones, sino que entregue a los ayuntamientos el dinero que recibe de Lanbide. Es decir, adelantar el 53% del coste en el año de la contratación (2024) y, probablemente, aportar el 47% del coste en dos años (2026).

El representante de Lasarte-Oria dice que ellos no ven esta última opción y que su interventor tampoco está de acuerdo con ella y no la aceptaría.

Se somete a votación una de las 3 opciones para que la Mancomunidad presente su proyecto en Lanbide. Finalmente, todos los municipios han optado por la opción b) de incrementar el presupuesto inicial en 175.000 €con remanente de tesorería. Lo que supone un total de 494.200 €. Además, por la elección de esta opción b) se aceptan los siguientes resultados:

ESKUd77402d3-e1a3-4799-81e5-6c934d4a9d95

| | Esleitutakoak | Peoiak | Ofizialak | Tekni/Adm. |
|---|---|---|---|---|
| Andoain | 5 | 3 | 1 | 1 |
| Astigarraga | 2 | 2 | 0 | |
| Hernani | 5 | 2 | 3 | |
| Lasarte-Oria | 6 | 3 | 1 | 2 |
| Urnieta | 2 | 2 | 0 | |
| Usurbil | 2 | 2 | 0 | |
| BBM | 1 | 0 | 0 | 1 |
| | 23 | 14 | 5 | 4 |

* Recordar que la Mancomunidad anticipa 12.500,00 euros de subvención por personal técnico o administrativo, no el coste total del personal.

Por tanto, la Mancomunidad adelantará a los ayuntamientos 17.375,70 € por peones y 19.652,12 € por oficiales. Estas cuantías ya contemplan un incremento salarial del 2%.

Además, se prevé abordar la línea 2 de los ALE, para lo cual se dispondrá de unos 75.000 €.

**5.- Aprobación de las modificaciones de crédito: transferencia de créditos (para calefacción y aire acondicionado) y créditos adicionales (para las ALE 2023).**

A pesar de haber enviado toda la documentación con anterioridad, el Secretario-Interventor les dio una breve explicación de en qué consisten las modificaciones de crédito. Transferencia de crédito, es el trasvase de dinero del crédito global a la partida de inversiones reales, para la instalación de aire acondicionado y calefacción en las habitaciones que faltan en la oficina. Es decir, que los dos aires adaptados ya instalados se distribuyan en otros tres, siendo un total de 5. Ampliación de crédito por ALE 2023 a los tres municipios (Lasarte-Oria, Andoain y Urnieta) para adelantar el importe que no se adelantó en diciembre por algunos problemas. En definitiva, la cantidad no utilizada en el presupuesto 2023 se destinará en 2024.

Ambas modificaciones de crédito han sido aprobadas por unanimidad de todos los representantes

**6.- Aprobación de los expedientes a aprobar en la Comisión Especial de Cuentas: Cuentas Generales 2023 y expediente de liquidación.**

Aunque previamente se haya enviado documentación al respecto a todos los representantes, el Secretario-Interventor explica brevemente, por ejemplo, que se han consignado créditos de dudoso cobro para no exagerar el remanente de tesorería y reflejar mejor la realidad. Se les indica, por ejemplo, que en estos dudosos créditos se ha consignado el importe de lo que aparecía para recibirlo en 2023 del TEE 2022, que no se percibirá en 2023 sino en 2024.

ESKUd77402d3-e1a3-4799-81e5-6c934d4a9d95

Por tanto, una vez aprobadas estas cuentas por la Comisión Especial de Cuentas, se remitirá a su publicación y se convocará a la Asamblea General para la aprobación, en su caso, de las Cuentas Generales.

**7.- Informar sobre las modificaciones de la Relación de Puestos de Trabajo de la Mancomunidad: salarios (por los últimos incrementos) y Titulación de la Directora y los/las Técnicos/as. La aprobación corresponde a la Asamblea General.**

Aquí el Secretario-Interventor, avisado desde Lasarte-Oria, manifiesta que existe un error en la Plantilla Orgánica y por ello no coincide con lo que figura en la Relación de Puestos de Trabajo. Por ello, en la Plantilla Orgánica en el lugar donde pone 1 Técnico de Empresa y Emprendizaje, debería aparecer 2 Técnicos de Empresa y Empredizaje.

Por otro lado, en lo que se refiere a las Titulaciones, en el caso de la directora, como dice la ley, antes se decía "Grado o equivalente" y ahora "Título de Licenciado en Derecho, Política, Economía o Ciencias Empresariales, Intendente Comercial o Actuario".

Por otra parte, en el caso de los Técnicos, donde antes decía "Grado o equivalente", ahora dice "Grado, Licenciatura, Ingeniero Técnico, Diplomatura Universitaria, Arquitecto Técnico o equivalente".

Por último, en el caso del Secretario-Interventor, en el apartado Taldea/Grupo, donde antes figuraba A1, ahora figura A2.

Por exigencia legal, estas modificaciones han sido aprobadas por los miembros de la Asamblea y se someterán, en su caso, a la aprobación de la próxima Asamblea General.

**8.- Establecer o no los méritos específicos del Secretario-Interventor de la Mancomunidad (5%) para el concurso ordinario 2024.**

El Secretario-Interventor señala que la DFG, como todos los años, ha preguntado a las entidades locales si va a participar en el concurso unitario de este año en la provisión de puestos con habilitación de carácter nacional y, en su caso, si queremos concretar méritos específicos (cuyo valor es del 5%).

Se aprueba por unanimidad no participar en el concurso unitario de este año y por tanto no concretar méritos específicos.

Fuera del Orden del Día, antes de llegar al apartado de Ruegos, Preguntas y Propuestas, y tras considerar urgente la discusión del asunto, se adoptaron por unanimidad, y por tanto con el quórum de la mayoría absoluta de los miembros de la Asamblea, los siguientes acuerdos

ESKUd77402d3-e1a3-4799-81e5-6c934d4a9d95

**9.- Ruegos, preguntas y propuestas.**

El Secretario-Interventor recuerda la necesidad de que los alcaldes de los municipios firmen el convenio que regula los pliegos unificados para la contratación de la empresa de inserción. A Urnieta le queda firmar, aunque dice que no le ha llegado nada. Intentaremos solucionarlo. Además, les dice que esta semana intentará enviarles un borrador de pliegos para que les echen una ojeada.

Por otra parte, se han fijado los datos de las próximas Juntas de Gobierno: el 13 y el 27 de mayo a las 12:30 horas. Además, se acuerda celebrar reunión de la Asamblea General el día 17 de junio a las 12:30 horas (fecha que también se aprovechará para una nueva reunión de la Junta de Gobierno).

La Directora dice que Basquetour ha dicho que en Gipuzkoa hay muchos participantes, por lo que seguramente nosotros no vamos a ser asignados. Por tanto, si esto es así, esta línea de trabajo (estrategia turística) se ha visto bien abordada por nosotros mismos.

Y sin más asuntos que tratar, la Presidenta levanta la sesión ordinaria a las 14:20 horas. Redactado por el Secretario-Interventor el presente documento relativo al período de sesiones, con la lectura y visto bueno de la Presidenta, lo firman ambos de conformidad con lo dispuesto en el artículo 110.2 del vigente Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Local. Y de cuanto antecede, doy fe.

**O.E., / Vº Bº**
**La Presidenta**



EKS | CSV: **ESKUd77402d3-e1a3-4799-81e5-6c934d4a9d95**
*Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=89310*
*Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=89310*